

Euria ari du! Eta zer?  
Txamarra jantzi, bota egokiak  
eta aterkiak eramaten ditugu!  
Eta eskolan aldatzeko arropa  
izan dezakegu.

Haurrok nahiago  
dugu eskolara  
lagunekin oinez joan!

Egunero, udaltzaina izaten dugu  
bidelagun. Egunero, 8:30etatik  
aurrera bidea igarotzen lagundu  
eta segurtasuna ziurtatzen digu.

Bizikezi -  
Fleming  
Herri eskola

Berdean  
mugitzen  
gara



Fleming Herri Eskolako ikasleak herritik eskolara oinez joaten gara, herria deskubrituz, ingurua biziz eta gozatuz, txiki eta nagusiagoak elkarrekin eta bidea autonomikoki eginez. Haurrok bidez gozatzen dugu!



## Zein onura dakarkigu oinez joateak?

1

**OSASUNA.** Eskolara oinez joateak heziketa fisikoa egitea dakar, eta bitzta sedentarioa ekiditea; aldi berean, loditasuna gutxitzea, eta baita bestelako gaixotasunak ere, gaixotasun kardiobaskularrak edo diabetesa. Hobeto sentitzen naiz...

2

**LAGUN ARTEKO giroa.** Eskola bidean lagunekin joaten gara. Hau dela eta, ikasleak gustorago eta seguruago joaten gara eskolara. Gainera, harremanak sendotu egiten dira eta ikasleen arteko berdintasuna sustatzen da.

3

**Herriko INGURUMENA.** Eskolara oinez joateak berotegi efektuko gasen isuriak murrizten ditu, airearen kalitatea hobetu eta kutsadura akustikoa gutxitu egiten du. Gainera, airearen kalitate hobekak ikasteko gaitasuna, ahalmen kognitiboa hobetzen du. Eskolan arnas garbia arnastu nahi dugu!

4

**AUTONOMIA, ARDURA ETA KONTZENTRATZEA.** Eskolara oinez joaterakoan, gure autonomia eta ardura gehiago garatzen ditugu. Gainera, oinez joanda, kontzentratze maila igo egiten da, klasera esnago inisten baikara. Aldi berean, gure orientatzeko ahalmena ere hobetzen da. Askoz ere gehiago ikasten dugu!



### Zer da Fleming Bizikezi?

Eskolara modu autonomo, seguru eta osasuntsuan joan-etorriak egiteko proiektua da. Etxetik eskolara eta eskolatik etxera egiten diren joan-etorriak umeei oinez egitea nahi dugu; dagokien espazioa berreskuratuz, modu seguru eta autonomo batean egin ditzatela bultzatzen dugun bitartean.

### Helburuak:

- Haurrak eskolara bakarrik joatea, oinez eta lagunartean. Hau da, orain gutxi arte naturala izan dena berreskuratzea.
- Haurrek autonomia eskuratzea, ohitura aktibo eta osasungarriak indartuz.
- Haurrek Arratzain ingurua hobeto ezagutzea eta espazio publikoa bereganatzea.
- Haurrak beraien ingurunearen eraldaketan protagonista izatea eta herritar aktibo bihurtzea.

- 1 Arratzain eta Arregi baserriak
- 2 Gaztainondoa
- 3 Urritzak
- 4 Behiak
- 5 Oilategia
- 6 Fleming Herri Eskola

### Bidean, saiaturko gara...

1. Anduratsuak izan eta nagusiek txikienei laguntzen.
2. Udaltzaingoa ematen dituen agindu, seinale eta gomendioei kasu egiten.
3. Auto bat edo autobusa baldin badator erne egoten eta beti espaloitik joaten.
4. Euria ari badu, zira edota aterkiak motxilatik ateratzen.
5. Inguruko ekosistema zaintzen, eta eskola-bidea gure espazioa denez, edozein kalteren berri eskolan edo gurasoei ematen.
6. Zebra bideetan, itxaroten autoak pasa arte.